

## Gaur txangoa dugu



Gaur larunbata da. Goizeko bederatziak dira eta eguraldi polita egiten du. Gorka eta Gontzal kaletik doaz hitz egiten. Gaur txangoa dute. Azkenean, autobusera heldu dira. Autobusa beteta dago, ia-ia ez dago lekurik.

-Jende asko, ezta? -dio Gontzalek .

-Hor badugu lekua! -dio Gorkak.

Gidariak atzera begiratu du eta esaten du: -Aurrera!

Ume guztiak poz-pezik daude.

Bi ordu pasatu ondoren, mendira iritsi dira eta guztiak kanpora irten dira. Lekua oso polita da, berde-berdea.

Umeak zelaian jolasten ari dira. Bero egiten du eta umeak nekatuta daude. Horregatik errekan bainatzera doaz.

Gure lagunak gose dira eta otarteko ederrak dituzte. Guztiek ez, Gontzalek ez du otartekorik.

-Zuek duzue nire otartekoa? -galdetzen du Gontzalek

- Ez. Tori hau! -dio andereñoak.

Iluntzen ari da eta andereñoak umeei deitzen die.

-Azkar! Hiru minutu dituzue.

Gontzali orain motxila falta zaio.

-Nire motxila? -galdetzen du.

-Guk ez dugu -erantzuten dute lagunak.

Herrira heldu dira. Han gurasoak daude.

Umeez egun zoragarria pasatu dute, baina Gontzali ez zaio gustatu. motxila galdu du eta.

-Non dago motxila? -galdetzen dio amak.

-Ez dakit! -erantzuten du Gontzalek.



# GAUR TXANGOA DUGU

**Eman erantzuna galdera hauei:**

1.- Nolako eguraldia egiten du gaur?

---

---

2.- Zer dute gaur Gorkak eta Gontzalek?

---

---

3.- Nola dago autobusa?

---

---

4.- Nortzu daude poz-pezik?

---

---

6.- Nora iritsi dira?

---

---

7.- Nolakoa da lekua?

---

---

8.- Non jolasten ari dira umeak?

---

---

9.- Nortzu daude nekatuta?

---

---

10.-Non bainatzen dira umeak?

---

---

11.-Nork ez du otartekorik?

---

---

12.-Nork eman dio Gorkari otarteko bat?

---

---

13.-Orain zer falta zaio Gorkari?

---

---

14.-Nortzu daude herrian?

---

---

15.-Gorkari gustatu zaio txangoa?



## Dringilindron

Dringilindron  
gaur gabon  
sabela betea daukat  
eta besteak hor konpon  
Lapiko bete aza egosi  
hori zuri eta gorriak  
berehala irentsi nituen  
azkenengoko gorria

## Gaur txangoa dugu (Hiztegia)

Motxila	.....	Garbia	.....
Txapela	.....	Zikina	.....
Alkandora	.....	Estua	.....
Zapatak	.....	Zabala	.....
Soinekoa	.....	Biribila	.....
Poltsa	.....	Berezia	.....
Txandala	.....	Nork?	.....
Gona	.....	Nortzuk?	.....
Jertsea	.....	Nolakoa?	.....
Botak	.....	Zer?	.....
Txanoa	.....	Norena?	.....
Eseri	.....	.....	.....
Jantzi	.....	.....	.....
Erantzi	.....	.....	.....
Zikindu	.....		